

MOZIOA LARRIALDI KLIMATIKOARI BURUZ

Naturtzaindia Elkartea, Besaide Elkartea, Arrasateko Zero zabor, Ekologistak Martxan erakundeok eta Arrasateko Udala osatzen dugun EAJ, PSEE-EE ETA PODEMOS AHAL DUGU , gure lurraldeak egun duen egoera klimatiko larria aitortzen dugu.

Larrialdi Klimatikoak datozen urte eta hamarkadetako agenda baldintzatzen etorri da, gure ongizatearentzako mehatxu nagusienetarikoa baita, benetako zibilizazio erronka bat. Mundu mailako eta Euskal Herriko egoera eta joerak ez du baikortasunerako tarte handiegirik uzten, are gutxiago geldotasunerako.

Azken urte luzeetan komunitate zientifikoak aldaketa klimatikoaren bilakaeraren inguruko abisuak eta jakinarazpenak igorri ditu. Aldaketa klimatikoa, Berotegi Efektuzko Gasen isuri masibo baten ondorioz gertatzen ari da, eta isuri horien arrazoi nagusia, bakarra ez bada ere, gure metabolismo sozioekonomikoa mantentzeko erretzen ditugun baliabide fosilen erabilpenean datza. Aldaketa klimatikoa, beraz, guk eragiten dugu nagusiki, eta dagoeneko ondorioak atzematen hasiak gara.

Urtez urte argitaraturiko txostenetan, egoera kaskartzen ari denaren zantzuak ditugu. Nazioarteko hainbat erakunde eta lantaldeek argitaratzen dituzten txostenetan gero eta argiago esaten da klima eta energia politikan, eta ondorioz gure egunerokotasunean, eraldaketa sakon bat, iraultza bat, eman behar dela, baldin eta egoerari aurre egin nahi baldin badiogu eta aldaketa klimatikoaren efektu bortitzenak pairatu nahi ez baditugu. 2018ko urrian, IPCC Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak, plazaraturiko txosten berezi batean, tonua altxa zuen indarrean dauden politikek behar besteko anbiziorik ez dutela salatuz, eta elektrizitatearen, nekazaritzaren, garraioaren eta industriaren sektoreetan aurrekaririk gabeko aldaketak eskatuz.

2018ko azaroan, Nazio Batuen Ingurumen Panelak aditzera emandako txostenak egoera larria dela ohartarazten du, esfortzuak areagotzen ez badira hondamendira goazela azpimarratuz.

Gaia bere osotasunean ikusirik, argi dago ataka batean gaudela eta orain arte proposatu eta egindakoa berraztertu beharrean gaudela. Ahal dela, eta industria iraultza aurretiko egoerarekin alderatuta, 1,5°Cko tenperatura igoera ez gainditzea helburutzat zuen 2015eko Parisko Akordioa betetzeko, orain arte emandako pausoak guztiz ez-nahikotzat jo beharrean gaude.

Hasieran genion bezala, zibilizazio erronka baten aurrean gaude, eta aurrez aurre Jaurlaritzaren eragin esparru eta ahalmenak gainditzen dituen lanak baditugu ere, egoerak partekaturiko esfortzu bat eskatzen du.

Gure ustetan, ipar orratza ahalik eta azkarren karbono isurietan neutroa izango den Euskal Herri baterantz begira jarri beharrean gaude, eta horretarako ezinbestekoa da eraldaketa azkar eta eraginkorrak egitea. Prozesu honek gure jendartean inplikazio anitz eta sakonak ekarriko ditu, bai ehun produktiboan, bai mugikortasunean, bai lurralde antolamenduan eta abar, horregatik deritzogu pausu azkar eta eraginkorrak ematea ezinbestekoa dela.

Adierazpen bateratu honen bitartez, egoeraren larritasuna aitortzea dugu helburu, Larrialdi klimatikoari behar besteko arreta ipintzeko asmoarekin, aurrerantzean politika publiko guztiak Larrialdi Klimatiko egoeraz kutsa daitezen.

1. Arrasateko Udalak larrialdi Klimatiko egoera deklaratzeko du.
2. Arrasateko Udalak, legebiltzarrean tramitatzen ari den lege proiektua Eudelekin koordinatu dezala Jaurlaritzari eskatzen dio. Era berean, abian jarri duen lege proiektu horrek deklaratzeko duen larrialdi horri aurre egiteko beharrezkoa den karbonogabetze prozesua 2040. urtera aurreratzeko moduko plangintza eta politikak abiatzera aztertu dezala eskatzen dio.
3. Arrasateko Udalak, Jaurlaritza aldaketa klimatikoaren eraginez pairatuko ditugun ondorioetara egokitzeko neurriak hartzera premiatzen du, era koordinatuan udaletxe eta gainontzeko erakundeekin.
4. Arrasateko Udalak, bere eskumenen baitan, Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko politika eraginkorrak garatzeko konpromiso irmoa adierazten du.
5. Udalak 4/2019 Jasangarritasun Energetikoaren Legearen garapena udalerrira egokitzeko hurbilpen lan bat egingo du 8 hileko epean, aldaketa klimatikoari aurre egiteko pauso garrantzitsu bat izanik.
6. Arrasateko Udalak, legebiltzarren onartuko duen aldaketa klimatikorako legeak jasoko dituen helburuen garapenerako plangintza martxan jarriko du. Udalerriko egoeraren diagnostika kontuan hartuta, prozesu partehartzaile baten eskutik, herritarren eta herriko eragile ezberdinen ekarpenak bilduko dituelarik.
7. Arrasateko Udalak, udalerriko herritar eta eragileekin elkarlanean, plangintza hau aurrera eramateko beharrezkoak diren bitarteko tekniko zein ekonomikoak bermatzeko konpromisoa hartzen du, bere gaitasunen arabera izanik plangintza gauzatzeko epea. Herriko plangintza honetan aurretik egon daitezkeen ekintza zein proiektuei lehentasuna emango zaie, esaterako:
 - Herriko eraikin publikoetan sistema berri iraunkorrak jartzen joatea aldaketa klimatikoaren eraginak saihestu edo gutxitu ahal izateko.
 - Arrasateko etxebizitzetan, efizientzia energetiko handiena lortzeko programa edo proiektu bat bideratuko da. Udal eraikinetan eta bereziki eraikiko diren berrietan efizientzia energetiko handiena lortzeko neurriak hartuko dira.
 - Laubide plazan dagoen airearen kalitatea neurtzeko tresnaren informazioa herriari eskuragarri jarri eta ezaugarri desberdinak dituen herriko beste eremu batzuetan ere neurketak egingo dira.
 - Bidegorriaren proiektuari lehentasuna emango zaio mugikortasun planean gai hau ardatz bihurtuz. Karbono isurketa handien artean kokatzen da garraioaren sektorea. Hori dela eta, Arrasateko garraioaren erabilera murriztu eta aldi berean karbonogabetzeko urratsak ematen hasi.

- Lurrak erostea, modu planifikatuan eta udalaren gaitasunaren arabera bioaniztasuna berreskuratzeko eta aldi berean lur sail horietako basoak karbonoa metatuko duten gordailu natural gisa erabiltzea.
- Udalak, herritarrak kontsumo arduratsuaren baitan kontzientziatzeko kanpainak bultzatuko ditu. Era berean, hondakinen gaikako sailkapena eta birziklapena bultzatzeaz gain, hondakinak murrizteko eta berrerabilpena bultzatzeko jarrerak sustatuko ditu.

8. Arrasateko Udalak hiri lurreko zuhaitzi eta berdeguneen babesa bermatuko duen protokolo bat lantzeko konpromisoa hartzen du, klima aldaketaren ondorioei aurre egiteko ezinbesteko elementuak direla kontuan hartuta, bai CO2aren finkapenagatik, baita kaleetako tenperatura leuntzen dutelako udan zein neguan.

9. Arrasateko Udalak, herritar eta eragile sozial, ekonomiko eta kultural guztien aldaketa klimatikoaren ondorioez jabetzeko kontzientziazio kanpaina bat martxan jartzeko konpromisoa hartzen du.

10. Arrasateko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako trantsizio ekologikorako ministerioari bideratuko die onartutako mozioa.